

EDITORIALA

Dirudi oso atzean geratzen direla, edo ez da horretaz ia ezer hitz-egiten, sindikatu arteko liskarriak, beren ordezkariak maila egiaztatze-rakoan edozein lan hitzarmena negoziatzeko garaian. Legedi orokor-rrak ezartzen zituen gutxiengoak betetzen ziren ala ez; gehien duen ordezkariak izaera zuten zenbait sindikatuak... Geroxeago, auzi horrek garrantzi txikiagoa izan du, nolabait zabaldu izan da gutxiengo-an sinatzeko jarrera ere, eta erakunde ofizialetatik zilegitasun zantzuak eman zaizkio honako jokoare, buletin ofizialean argitaratu egin baitira horietako zenbait hitzarmen.

Auzia beste nonbaiten kokatu da, ordea. Ontzat eman izan ohi da sindikatuen ordezkariak maila neur-tzeko hauteskunde sindikalen erre-gistrorako erakunde publikoek ema-niko ziurtagiria, beste biderik ez baitzegoen horretarako. Patronalek, ordea, mahaiaren beste aldean, ez dute frogatu behar izan beren orde-zkariak maila. Negoziazio kolektibo-aren egungo egoeran jakina da ohi-ko patronalek negoziazio sektoriala bahiturik dutela, erreformek bere eskura jarri dituzten abantaila guz-tiak ezarri nahi dituzte eta. Beste jarrera irekiagoa, ulergarriagoa duten beste patronalak eratu dira hainbat lurraldeetan eta zalantzan jartzera etorri dira bakoitzak duen ordezkariak. Gatazka sortu da patronalen artean eta horrek luzera-ko emango du.

Espainiako patronalaren euskal delegazioek kolokan ikusten dute beren nagusigoa. Beste patronal berriek, Euskaldendak esaterako, haren jarrera zikoitzak agerian utzi eta hitzarmena sinatu dute ELA-rekin Bizkaiko Ehungintza Merkataritzan. Ausardia galanta. Nor eta ELA-rekin! Patronalen ordezkariak maila egiaztatzeaz gain, sakoneko gatazka dugu aurrean eta aurki argitu beharra dago: zer egingo duen Eusko Jaurlaritzak hitzarmen honekin. Zilegitasuna emango dio eta aldizkari ofizialean argitaratu edo ez? Erabakiak ertz asko izango ditu baloratzeko. Oso-oso zorrotz jarraituko diogu erabakiari eta erantzukizunez aritu ere.

Lankidetu!

Milaka lagunek bat egin zuten urriaren 21etik 25era negoziazio kolektiboaren alde antolaturiko borroka eta mobilizazio astearekin

“ENPRESETAN ANTOLATUZ, ERREFORMAREN AURKA BLINDATU”

Oso pozik egoteko moduan egon beharra daukagu”. Hala mintzo da negoziazio kolektiboko arduradun Joseba Villarreal urriaren 21etik 25era bitartean ELAk antolatu zuen borroka eta mobilizazio astearen inguruko balorazioa egiteko orduan. “Negoiazio kolektiboa astintzea zen gure asmoa –gaineratzen du–, eta bete-betean lortu dugula esango nuke. Lan erreformaren ondorio lazarrien aurka babesteko gaituzten hitzarmenak nahi ditugu, eta prozesu horretan urrats ugari eman ditugu”.

Urriaren 21ean protesta ekintzak egin ziren Hego Euskal Herriko patronal nagusien aurrean –Adegi, Cebek, SEA eta CEN–; urriaren 22a mobilizazio eguna izan zen sektore publikoan; urriaren 23an argitaratzen diren baldintza-orri guztietan gizarte-klausulak legez jasotzea exijitzen duen Legegintzako Herri Ekimena aurkeztu zen Gasteizko Parlamentuan; urriaren 24an negoziazio kolektiboaren egungo egoera aztertze-ko jardunaldi arrakastatsua egin zen Bilbon; urriaren 25ean mobilizazio eguna izan zen Nafarroan...

MOBILIZAZIO ANDANA

Mobilizazio kopurua eta bertan parte hartu zuen langile andana ikusirik, hasierako helburu guztiak bete direla nabarmentzen du Villarrealak. “Hitzarmenaren aldeko borroka astea deitu genuenean langileei mezu positibo bat bidali nahi izan genien: posible da lan eta negoziazio kolektiboaren erreforma gelditzea, hots, gure lantokietatik kanpo uztea. Noski, helburu hori lortzea ez da lan xamurra, baina lantokiz lantoki eta sektorez sektore antolatzen bagara eta borrokatzen badugu, posible da lortzea. Zenbait kasutan posible izan da akordioak ixtea eta enpresetako lan-baldintzak blindatzea. Beste kasu askotan ez dugu lortu akordiorik, baina bide eman digu etorkizunean egin ahal izateko. Eta, orain arte urratsik eman gabeak ziren hainbat lekutan lehene-ngo urratsak emateko balio izan du”.

ENPRESA ETA SEKTORE UGARI

Bizkaiko egoitzak; itunpeko irakas-kuntza; Osakidetzaren garbiketaz ardu-ratzen diren azpi-kontratak; Gipuzkoa-ko garbiketaren enpresak; Gipuzkoako



Urriaren 24an Bilboko La Casilla kiroldegian egin zen ekitaldia

hainbat kiroldegi; hitzarmenaren alde aspaldi mobilizatu diren hamaika enpresa... Askok izan ziren joan den astean grebak eta lanuzteak egin zituzten enpresa eta sektoreak. Eta, beste asko, euren eskubideen alde mobilizatu ziren langileak.

“Zerrenda luzea da, zorionez”, aipatzen du Joseba Villarrealak. “Iragan urtean lan eta negoziazio kolektiboaren erreforma indarrean jarri zutenetik, ELAn erronka bat jarri genion geure buruari: ahalik eta langile gehien erre-forma horretatik babestea. Eta datuak hor daude. Dagoeneko 250 enpresetan lortu ditugu enpresa-akordioak. Iragan astean, esaterako, 13 izan ziren. Prozesua zaila eta nekeza da, bai, baina geldiezin. Eta prozesu horren buru –beste hainbat sektore eta esparrurekin, noski– Gipuzkoako metala dugu. Horrek azal-

tzen du zergatik Adegi dagoen horren urduri eta zergatik jarduten den horren gogor gure kontra. Erreformaren hooligan nagusiek ikusten dute nola diren gero eta gehiago erreformaren kontra blindatzen diren enpresak, eta horrek sutu egiten ditu”.

Astearen eta egungo abagunearen balorazioa egiteko orduan ondorio nagusi bat ateratzen du Villarrealak. “Soilik antolatuak, sindikalizatuak eta mobilizatuak dauden lantokietan izango da posible lan eta negoziazio kolektiboaren erreformaren aurka blindatzea. Ez da beste aukerarik. Makina bat aldiz esan dugu hori, baina errealtateak egunero-egunero erakusten digu aurre-ko baieztapena zuzena dela. Guk ez baditugu gure lan-baldintzak defendatzen, inork ez dizkigu gure izenean defendatuko”.

“La semana del 21 al 25 de octubre ha sido un nuevo empuje al objetivo de dejar la reforma laboral en papel mojado. Gracias al trabajo de la militancia de ELA ya son más de 250 las empresas en las que se han acordado convenios que blindan ante la reforma”.

Adolfo Muñoz, secretario general, destacó la importancia del sindicato para luchar contra las reformas en el acto central de la semana de lucha y movilización

"SÓLO ORGANIZÁNDONOS Y AFILIANDO PARAREMOS LA REFORMA"

Bilbao acogió el jueves 24 de octubre el acto central de la semana de lucha y movilización. A las 10:00 comenzó en La Casilla un multitudinario acto donde se analizó al detalle la actual coyuntura y cómo hacer frente a la reforma laboral y de negociación colectiva. Posteriormente una manifestación recorrió las principales calles de Bilbao, para terminar con una concentración

ante la patronal Confebask. Sin olvidar, por supuesto, las huelgas, paros y protestas convocadas en las distintas empresas y sectores en lucha.

ELA con Bizkaidendak para las trabajadoras del comercio textil de Bizkaia.

Entre intervención e intervención también hubo espacio para emocionarse, reír e incluso silbar y protestar. Durante todo el acto se emitieron diferentes videos, en los que se pudieron ver imágenes de conflictos, de movilizaciones, de declaraciones de algunos políticos y responsables de la patronal.

Como colofón de la jornada de La Casilla, antes del acto final, intervino el secretario general, Adolfo Muñoz, que defendió la necesidad de organizarse y de sindicalizar las empresas ante el deterioro de los salarios y la cada vez más injusta distribución de la riqueza. "La negociación colectiva sólo nos importa a nosotros; la patronal tiene las leyes para bloquear la negociación e imponer sus condiciones salariales y laborales".

"Es imprescindible, –añadió– confrontar con la patronal en unos momentos durísimos, en los que la política le da todo. Se aprovechan de la crisis para chantajearnos, como coartada. Y, desgraciadamente, en Euskal Herria tenemos la mala suerte de tener una patronal rancia hasta decir basta, una de las más retrógradas de toda Europa".

que blindan a las y los trabajadores contra la reforma laboral; Mirari Irure analizó la importancia de la Iniciativa Legislativa Popular que la víspera presentó nuestro sindicato en el Parlamento Vasco; Maricruz Elkoro, por último, analizó el tema de la deslegitimación patronal, tomando como ejemplo el acuerdo alcanzado recientemente por

KOPLAZ KOPLA, ERREFORMAREN KONTRA

Hauk dira urriaren 24ko jardunaldiari hasiera emateko Iker Urruzolak –patronaleko kide baten gisan, **kolore magentaz– eta Idoia Elustondok –langile baten paperean, kolore beltzez– kantatu zituzten koplak. Doinua: Kontu barri bat suzedidu da**

**Joxe Artola daukat izena
enpresari txit aparta
hainbeste alfer hemen biltzea
bai dugula kriston marka**

**Egun guztia zutzat lanean
Miseria baten truke
Ez etorri orain hona Joxe
Guregana kontu eske**

**Sindikalistak jope zuena!
Beti kexa eta kexa
Lanera noa ordaintzeko
Txaleta ta Mercedesas**

**Hiru txalet eta bi Mercedes
Milioiak ere hor bueltan
Hori guztia zuk lortu duzu
Gure bizitzen kaltetan**

**Joder neska egon ai isilik
Eta ez kexaka hasi
Mila eurekin ere ederki
Langileak al du bizi**

**Aski da langile jarri zaitetz
gure borrokan jo ta ke
Joxe Artolak bere milioiak
Gurekin banatu arte**

**Bueno, bueno, bueno, bueno, bueno.
Ez zaitetz jarri horrela
Ez al dakizu ahoa itxita
Ederragoa zaudela**

**Banaka-banaka ahulak gera
Elkarrekin sendo gaude
Ta ez dugu amore emango
Gure eskubideen alde**

**Jope neska ez adi haserre
Nengoen modu onean
Ai ez al goaz azken finean
Denok ba ontzi berean?**

**Zuenak ez du konponbiderik
Goazen langile geurera
Isildu zaitetz behingoz ta entzun
Mitina doa hastera!**



El acto de La Casilla comenzó con unos bertsos cantados por Iker Urruzola –en el papel de un miembro de la patronal– e Idoia Elustondo –en el papel de una trabajadora–, en los que de un modo divertido e irónico ilustraron la necesidad de movilizarse para poder luchar por nuestros derechos laborales. Tras esta introducción, Joseba Villarreal –responsable de negociación colectiva y conductor del acto– dio paso a las primeras intervenciones.

Es evidente que de cada lucha se aprende, y aunque cada conflicto pueda tener sus propias características, siempre es importante escuchar a otros compañeros y compañeras. Por ello durante el acto subieron al escenario varios militantes de nuestro sindicato que se encuentran –o se han encontrado recientemente– en huelga, para analizar sus conflictos. De este modo se pudo ver lo que ha pasado en lugares como Puertas Lorenzo, Polideportivo de Irun, Residencias de Gipuzkoa y Bizkaia, Feu-Vert, Virtisú, Landalan, Talleres Gaztelu y Amaia, ITT Iurreta, Technologies & Systems, las ITVs de Irun y Urnieta...

Responsables de las tres federaciones profesionales, –Gizalan, Industria y Construcción, Zerbitzuak–, también hicieron un breve resumen de la actual coyuntura de su federación. Igor Eizaguirre denunció que el Gobierno Vasco se ha convertido en una mera sucursal de Madrid; Luis Fernández valoró muy positivamente el trabajo que está haciendo ELA en las empresas, donde se han logrado cientos de convenios

"EZIN DUGU JENDEA ALDE BATERA UTZI"

Nafarroan urriaren 25ean izan zen mobilizazio eta borroka astearren ekitaldi nagusia. Goizean ehunka delegatu bildu ziren Carlos III zineman antolatu zen jardunaldian. Ekitaldian negoziatio kolektiboak Nafarroan bizi duen egoera jorratu zen. ELAk Nafarroan duen koordinatzaile Mixel Lakuntzak salatu zuenez egoera oso larria da herrialdean, langabezia izugarri handitu delako eta langileen erosalmena gero eta txikiagoa delako. Egoera hau iraultzeko antolatzearen beharra azpimarratu zuen. Goizeko jardunaldiaren ostean ELAko ordezkariak CEN patronalaren egoitzaraino joan ziren, gure eskubideen kontra egiten ari diren eraso bortitzak salatzeko.



Miles de trabajadores y trabajadoras secundaron la semana de lucha y movilización organizada por ELA del 21 al 25 de octubre en defensa de la negociación colectiva. Este es un resumen en imágenes.

UNA SEMANA EN IMÁGENES



Argitaratzen diren baldintza-orri guztietan gizarte-klausulak legez jaso behar izatea exijitzen duen Legegintzako herri-ekimena aurkeztu du ELAk Gasteizko Legebiltzarrean

AZPIKONTRATETAKO LANGILEEN ESKUBIDEEN ALDE



ELAk ordezkariak urriaren 23an Gasteizen Legegintzako herri-ekimena aurkezteko orduan

ELAk Legegintzako herri-ekimena aurkeztu zuen urriaren 23an Eusko Legebiltzarrean. Helburua argitaratzen diren baldintza-orri guztietan gizarte-klausulak legez jaso behar izatea da. Orain Legebiltzarrari dagokio eskaria onartzea; hala egingo balu lau hilabeteetan 30.000 sinadura bildu beharko liriteke ekimenak aurrera jarraitu ahal izateko.

ELA-Zerbitzuak federazioko idazkari nagusi Mirari Irurek azpimarratzen duenez, azken urteetako erreforma ezberdinek nabarmen kaltetu dituzte langileen eskubideak, administrazio publikoetarako lan egiten duten azpikontratetako langileak kinka larrian utzirik. "Legegintzako herri-ekimen honen bitartez gutxieneko batzuk bermatu nahi ditugu: langile azpikontratatuaren subrogazio-eskubidea, enpresa-aldaketak gertatzen direnean; gutxieneko lan-eta soldata-baldintzak; aurreko bi baldintzak edo enpresariak langileekin dituen betebeharrak bete ezean administrazioak enpresarekin duen merkataritza-kontratua amaitutzat jotzea...".

POR UNA LEY QUE OBLIGUE A RECOGER CLÁUSULAS SOCIALES EN LOS PLIEGOS DE CONDICIONES DE LAS ADMINISTRACIONES PÚBLICAS DE LA CAPV

Desde ELA hemos puesto en marcha una ILP que, una vez admitida a trámite, requerirá la recogida de 30.000 firmas a favor del mantenimiento del empleo y de unas condiciones mínimas en las subcontratas del sector público.

¿Qué es una Iniciativa Legislativa Popular?

En las actuales democracias, es el principal instrumento de participación ciudadana en la rama legislativa de la vida política. Se trata de la puesta en marcha de un proceso mediante el cual la ciudadanía propone al parlamento la aprobación de una ley sobre una materia no regulada hasta ese momento.

¿Qué proponemos desde ELA como materia para esta ILP?

La obligación legal de que todos los pliegos de condiciones que se publiquen recojan cláusulas sociales.

¿Qué tipo de cláusulas sociales?

1. **El derecho de subrogación** de las y los trabajadores subcontratados ante cualquier tipo de cambio de empresa.
2. La **garantía de unas condiciones de trabajo y salariales mínimas**. ¿Cuáles? Las del convenio sectorial vigente cuando exista o las del último vigente cuando el convenio sectorial no se haya renovado.
3. **Sanciones para las empresas que incumplan los anteriores requisitos** u otros que tienen que

ver con las obligaciones del empresario para con sus trabajadores/as.

¿Quién decide si acepta o no esta propuesta?

La decisión está en manos del Parlamento vasco. Es decir, de los grupos parlamentarios con representación en el Parlamento Vasco.

Se trata, por lo tanto, de una oportunidad histórica para que los políticos hagan muestra de su interés y preocupación con los principales problemas que atraviesan los trabajadores y trabajadoras de los servicios que ellos mismos decidieron, en su día, poner en manos privadas.

En fechas cercanas al 7 de julio, día en el que muchos convenios podían desa-

parecer, varios representantes políticos y miembros del actual Gobierno Vasco, incluido el propio Lehendakari Urkullu, hicieron pública su preocupación por la situación y afirmaron estar dispuestos a hacer todo lo que estuviera en sus manos para evitar la caída de los convenios y sus consecuencias.

Pues bien, esta ILP va dirigida a todos esos políticos. Tienen ante sí la posibilidad de dejar fuera de la administración subcontratada las consecuencias que tanto dijeron querer evitar.

Desde estas líneas les pedimos en nombre de ELA y de todos los trabajadores y trabajadoras subcontratados, que apoyen la tramitación de esta ley.



www.ela-sindikaturia.org / @ELAsindikaturia / ELA-Facebook

ELA **astekaria**

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela-sindikaturia.org

**Franqueo concertado
nº 08/207**